



Etxebizitzaren  
Gida Plana  
Plan Director  
de Vivienda



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,  
ETXEBIZITZA  
ETA GARRAIO SAILA  
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN  
TERRITORIAL, VIVIENDA  
Y TRANSPORTES

# 2021-2023 ALDIRAKO ETXEBIZITZAREN GIDA-PLANA EGITEKO LAGUNTZA

## Lan-koaderno Birgaitzea

---

# AURKIBIDEA

<b>1. ATALA.- 2021-2023 aldirako birgaitze-jarduerarako erronkak eta faktore kritikoak</b>	<b>4</b>
<b>2. ATALA.- Diagnostikoa</b>	<b>6</b>
<b>2.1.- EUSKADIKO ETXEBIZITZA-PARKEA</b>	<b>6</b>
<b>2.2.- TESTUINGURU DEMOGRAFIKO ETA SOZIOEKONOMIKOA</b>	<b>7</b>
<b>2.3.- BIRGAITZEKO PREMIAK</b>	<b>11</b>
A.- Premiaren kuantifikazioa	11
B.- Etxebizitzen profila	12
C.- Etxebizitza birgaitzeko premia duten familien profila	15
<b>2.4.- BIRGAITZE-JARDUERA</b>	<b>16</b>
A.- Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT)	16
B.- Birgaitzeko lizentziak	17
C.- Birgaitzeko laguntza-eskaerak	19
<b>2.5.- BIRGAITZE-POLITIKA PUBLIKOAK</b>	<b>20</b>
A.- Etxebizitzak Birgaitzeko Eusko Jaurlaritzaren Renove Plana	20
B.- PFEZko kenkari fiskalak	20
<b>2.6.- EUROPAKO ETA ESTATUKO EPE ERTAINEKO ETA LUZEKO ESTRATEGIAK</b>	<b>27</b>
<b>3. ATALA.- Balizko eztabaidagaien aurrerapena</b>	<b>29</b>

## DIAGNOSTIKO-INPUTAK

### 1. Euskadiko etxebizitza-parkea

- Biztanle eta etxebizitzaren errolda
- Eraikin eta lokalen errolda (2012)
- Etxebizitzaren udal-estatistika

### 2. Testuinguru demografiko eta sozioekonomikoa

- Biztanleen udal-estatistika
- Biztanleriaren proiektzioak
- Familiei buruzko inkesta jarraitua (FIJ)
- BJA, Gizarte Segurantzako afiliazioa, kontratazioa, langabezia erregistratua
- Errenta pertsonalari eta familia-errentari buruzko estatistika
- Bizi-baldintzei buruzko inkesta
- EEEren energia-datuak

### 3. Birgaitzeko premiak

- Etxebizitzaren-beharrei eta eskariari buruzko inkesta

### 4. Birgaitze-jarduera

- EITak (egindakoak eta aurreikusitakoak)
- Obra-lizentziak (EEEE)
- Birgaitze babestuko behin-behineko kalifikazioak (Sustapen Ministerioa)

### 5. Euskadiko birgaitze-politika publikoak

- Etxebizitzak Birgaitzeko Eusko Jaurlaritzaren Renove Planaren programa operatiboak
- Kenkari fiskalak

### 6. Europako eta estatuko birgaitze-estrategiak

***Birgaitze-jarduerarako errenka eta faktore kritikoak 2021-2023***

# **1. ATALA.- 2021-2023 aldirako birgaitze-jarduerarako erronkak eta faktore kritikoak**

- 1. Euskadiko etxebizitza-parkearen antzintasuna (% 43 1961 baino lehen eraiki zen) eta biztanleriaren zahartzea direla eta, premiazkoa da etxebizitza asko birgaitzea eta irisgarritasuneko eta energia-eraginkortasuneko baldintzetara egokitzea.**
- 2. Orain arte ahalegin handia egin bada ere, birgaitzeko erritmoa motelegia da Europako eraikin-parkea deskarbonizatzeke helburuak betetzeko.**

Estatu mailako Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Lege berriak, Espainiari lagundu nahi dio klima-aldaketaren aurkako borrokan dituen nazioarteko konpromisoak betetzen, 2050 " baino lehen "neutraltasun klimatikoa" deritzona lortzeko.

Horretarako, 2030erako helburu orokor batzuk planteatzen ditu, Parisko Akordioa betetzeko helburu horiek gorantz berrikusteko sistema batean. Lehenengo berrikuspena 2023an egin beharko da:

- Berotegi-efektuko gasen isurketak gutxienez %23 murriztea, 1990ekoekin alderatuta.
  - Azken energia-kontsumoan jatorri berriztagarriko energien kuota gutxienez% 42koa izatea (egungo %20aren aldean).
  - Gutxienez %74 jatorri berriztagarriko energiak erabiltzen dituen sistema elektriko bat lortzea (une honetako %40ren aldean)
- 3. Egoera sozioekonomiko berria «konplexua» da eta etxebizitza-jabeek inbertsio handiak egiteko oztopoa izan daiteke -> Nahitaezkoa da laguntza publikoak handitzea eta finantzatzeko prozesu eta formula berritzaileak ezartzea (prozesuen industrializazioa, kenkari fiskalen edo/eta etorkizuneko aurrezkien bidezko finantzaketa...).**

- 4.** Birgaitzarak ahalmen handia du gizartearen kohesioari eta ongizateari begira (area degradatuak berroneratzea, energia-pobretasuna...).
- 5.** Etxebizitzak birgaitzeko inbertsio publikoak eragin biderkatzailea du: diru publikoko euro bakoitzak 35 euroko eskari osoa sortzen du.
- 6.** Zaila da herritarrentzat kenkari fiskalak eta laguntza-programak ezagutu eta baliatzea. Konplexuegiak dira. Ezinbestekoa da informazioa, komunikazioa eta laguntza hobetzea.
- 7.** Europa-mailako faktore eta estrategia guztiek baliabide ekonomiko handiak eskaintzen dituzte, birgaitze potentziala (deskarbonizazio-estrategiak, ekonomia eta enplegua suspertzea, berrikuntza...) zein administrazio publikoaren beste arlo batzuk (enplegua, gizarte-politikak, ingurumena, industria...) sendotzeko.
- 8.** Birgaitze-jarduera bat dator euskal gizarteak partekatzen dituen balio eta printzipioekin (jasangarritasuna, irisgarritasuna, gizarte-kohesioa...).


## 2. ATALA.- Diagnostikoa

### 2.1.- EUSKADIKO ETXEBIZITZA-PARKEA

Euskadiko etxebizitza-parkearen antzintasuna dela eta, premiazkoa da etxebizitza asko birgaitzea eta irisgarritasuneko eta energia-eraginkortasuneko baldintzetara egokitzea.


- Euskadik 1.060.530 etxebizitzako parkea zuen 2020an. Haietatik, 903.758 familia-etxebizitza nagusiak ziren, eta haien batez besteko antzintasuna 45 urtekoa zen.
- Etxebizitzatarako eraikinen % 60 inguru 1980 baino lehen eraiki zen, hau da, 1979an Eraikinen Baldintza Termikoei buruzko Oinarrizko Araua indarrean sartu aurretik (EOA-BT-79<sup>1</sup>). **Etxebizitzen % 29, berriz, 2006an egungo Eraikuntzaren Kode Teknikoa indarrean sartu aurretik eraiki zen. Kode horrek, 1979ko arauarekin alderatuta aurrerapen handia izan arren, Europako beste herrialde batzuetakoetatik urrun dauden eskakizunak ditu.**
- Familia-etxebizitzen (nagusi zein ez-nagusien) % 30ek ez du igogailurik.
- 260.000 etxebizitza nagusik (% 28,8k) bizilagun bakar bat dute.

Etxebizitzatarako eraikin-parkearen kalkulua, eraikuntza-urtearen arabera. 2018




Iturria: Geuk egina, Eustaten estatistiketan oinarrituta Biztanle eta etxebizitzaren errolda, Etxebizitzaren udal-estatistika era Eraikin eta lokalen errolda.

Euskadiko familia-etxebizitzak, igogailua duten ala ez kontuan hartuta. 2019



**1.059.466**  
 Euskadiko  
 familia-  
 etxebizitzak.

Euskadiko familia-etxebizitza nagusiak, bizilagun-kopuruaren arabera. 2019



**2**  
 Batez besteko  
 bizilagun-kopurua


Iturria: Eustat. Etxebizitzaren udal-estatistika.

<sup>1</sup> Lehenago, babes ofizialen bat zuten etxebizitzek soilik betetzen zuten eraginkortasun-irizpideren bat, petrolioaren krisiaren ondorioz 1975eko ekainaren 12ko 1490/1975 Dekretua onartu zen arte. Dekretu horrek zenbait neurri ezarri zituen eraikuntzetan energia-konsumoa murrizteko. Neurri horiek Eraikinen Baldintza Termikoei buruzko Oinarrizko Arau batean (EOA-BT-79) txertatu ziren aurrerago


## 2.2.- TESTUINGURU DEMOGRAFIKO ETA SOZIOEKONOMIKOA

Euskal biztanleria etengabe zahartzen ari da, eta, gainera, bizikidetzak ere aldatu egin dira: gero eta gehiago dira pertsona bakarreko familiak eta guraso bakarrekoak.

- Euskal biztanleen %22,5ek 65 urte baino gehiago ditu, eta, Eustaten biztanleria-proiekzioen arabera, kopurua % 30era hurbilduko da datozen 10 urteetan.
- Euskal familia guztien %28 pertsona bakarrekoa zen 2020an, eta horien kopurua igo egingo da (2013tik +%10,4). Horien artean, %45ak 65 urte baino gehiago zituen.
- Guraso bakarreko familien kopuruak %21 igo da, eta, 2020an, guztien %10,4 ziren.




Iturria: Biztanleen udal-estatistika eta biztanleria-proiekzioak.



65 urte baino  
gehiago  
%45 inguru

Iturria: Familiei buruzko Inkesta Jarraitua (FIJ)



<sup>2</sup> Familiei buruzko Inkesta Jarraitua

## COVID-19ak eragindako egungo krisiak egoera sozioekonomiko konplexua utzi du, ziurgabetasunez betea eta, zalantzarik gabe, familiek etxebizitzaren inguruko ohiko eta ezohiko gastuei aurre egiteko duten gaitasunean eragina izan dezakeena.


- Pandemiak eragin nabarmena du jarduera ekonomikoaren eta lan-merkatuaren gainean.
  - ABEEE-ek eutsi egiten diote enpleguari, 2020aren bukaeran 34.400 laguni ematen baitzieten estaldura.
  - Pandemiaren eragina handiagoa da enplegu prekarioan (aldi baterako eta lanaldi partzialeko enpleguan).
- Aurreikuspenen arabera, susperraldia 2021eko bigarren seihilekoan irits daiteke. Hala, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak uste du 2021erako BPGd-a %6,7 haziko dela.

### Egoera sozioekonomikoari buruzko adierazle nagusien 2020ko bilakaera

- BPGd-a: -%9,5 (Aurreikuspenak: 2021 +%6,7; 2022 +%5,7).
- Gizarte Segurantzako afiliazioak: -%2,2 (-21.460 afiliatu)
- Enplegu-bulegoetan erregistratutako kontratuak: -%30,2 (-304.820 kontratu)
- Langabezia erregistratua (abendua): +%13,2 (+15.078 langabe).
- Langabezia-tasa 2020ko 4. hiruhilekoan: %11,2 (%9,5 2019an).
- Biztanleria langabea 2020ko 4. hiruhilekoan: +%17,5 (+17.400 langabe).
- Biztanleria enplegatua 2020ko 4. hiruhilekoan: -%2 (-18.600 enplegatu).
- ABEEEan dauden pertsonak 2020ko 4. hiruhilekoan 34.400 (biztanle enplegatu gisa zenbatu dira).

### COVID-19aren aurretik ere zaila zen egoera ekonomikoa gizarteko sektore handi batentzat.

- 2018an, Euskadiko familien %42,5ek 30.000 eurotik beherako diru-sarrerak zituen, eta 5 familiatik batek 15.000 euro baino gutxiago jasotzen zituen urtean.
- Bizi-baldintzei buruzko inkestaren arabera, euskal familien % 13,8k ez zuen diru-sarrera egonkorrik eta %29,9k diru-sarrera txikiegiak zituen. Biztanle enplegatuen artean, berriz, ehuneko hori %27,1ekoa zen.



Euskadiko familiak erreferentziako pertsonaren jardueraren arabera eta diru-sarreraren kalifikazioa. 2019


	Familiak (milaka)	Diru-sarrera ezegonkorak	Diru-sarrera txikiegiak
Guztira	893,8	% 13,8	% 29,9
Langabeak	31,3	% 41,9	% 70,0
Enplegatuak	373,7	% 15,5	% 27,1
Ez-aktiboak	488,8	% 10,7	% 29,4

Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta




## Energia-pobretasuna handitzen ari da

Bizi-baldintzei buruzko inkestaren arabera, **12.800 familiak (% 1,4k) ez zuten berokuntzarik 2019an**, eta, Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkestaren arabera, **2018an, 200.000 lagunek (biztanleen % 9k) arazoak zituzten etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko neguko hiletan** (+% 125,5, 2008ko inkestarekin alderatuta).



Iturria: Eustat. Bizi-baldintzei buruzko inkesta

**Bizitegi-sektorearen energia-faktura % 6,8 igo zen 2017an.** Familia eta biztanle bakoitzeko faktura % 6,7 handitu zen: 967 eurokoa izan zen familia bakoitzeko eta 395 eurokoa biztanle bakoitzeko.



Iturria: EVE. Energia-datuak

## Euskal gizarteko sektore handi batek irisgarritasun-arazoak ditu

118.900 pertsonak esan dute eskailerak igotzeko eta jaisteko arazoak dituztela, eta 60.000 pertsonak etxe barruan mugitzeko. Gehienek 60 urte baino gehiago dituzte.

Eguneroko zereginak betetzeko zailtasunen bat duen Euskadiko biztanleria (milaka), zailtasun-mailaren eta adinaren arabera

	Eskailera bat igotzea eta jaistea				Etxe barruan mugitzea			
	Guztira	< 35	35 - 59	>= 60	Guztira	< 35	35 - 59	>= 60
<b>Guztira</b>	<b>133,9</b>	<b>10,4</b>	<b>27,6</b>	<b>95,9</b>	<b>133,9</b>	<b>10,4</b>	<b>27,6</b>	<b>95,9</b>
<b>Zailtasunik gabe</b>	14,9	4,9	5,2	4,9	73,8	7,4	17,7	48,7
<b>Zailtasunen batekin</b>	<b>91,1</b>	<b>3,6</b>	<b>19,2</b>	<b>68,3</b>	<b>43,9</b>	<b>1,1</b>	<b>8,9</b>	<b>34,0</b>
<b>Ezin du</b>	<b>27,8</b>	<b>1,9</b>	<b>3,2</b>	<b>22,7</b>	<b>16,1</b>	<b>1,9</b>	<b>1,0</b>	<b>13,2</b>

Iturria: Eustat Bizi-baldintzei buruzko inkesta


## 2.3.- BIRGAITZEKO PREMIAK

### A.- Premiaren kuantifikazioa


Etxebizitzen beharrei eta eskariari buruzko inkestaren (EBEIaren) arabera, **68.423 familiak (Euskadiko guztien % 7,7k) euren etxebizitza birgaitzeko premia dute** (7.8653 familia gutxiago dira, 2017ko inkestarekin alderatuta).

- Haietatik, % 51,9k (35.543 familiak) uste du aukera handia edo nahiko handia duela datozen bi urteetan etxebizitzaren birgaitzeari ekiteko.
- Familien % 62,7k uste du etxebizitza birgaitzeko premia handia edo nahiko handia duela.


Etxebizitza birgaitzeko premia duten familien kopurua. 2019



Datozen 2 urteetan etxebizitza birgaitzeko aukera



Etxebizitza birgaitzeko premia-maila



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzen beharrei eta eskariari buruzko inkesta (EBEI)

## B.- Etxebizitzen profila


Etxebizitza kolektiboak  
% 96,8

Jabetzan  
% 92,0

60-90m<sup>2</sup>-ko azalera  
% 63,1


40 urtetik gorako antzinatasuna  
% 67,3

Deigarria da birgaitzeko premia duten etxebizitzen % 11,3ren antzinatasuna 15 urtetik beherakoa izatea.



### Birgaitzearen premiaren ezaugarriak


Familien erdiak (% 49,3k) etxebizitzaren barruko elementuak birgaitzeko premia du (elementu pribatiboak)



**Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzen beharrei eta eskariari buruzko inkesta (EBEI)

Hamar familiatik lauk (% 38,7k) etxebizitzako tenperaturari hobeto eusteko beharrek lotzen dute birgaitzeko premia.


Etxebizitza birgaitzeko premia, energia-kontsumoaren murrizketari dagokionez:



**Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzen beharrei eta eskariari buruzko inkesta (EBEI).

Bestalde, etxebizitza birgaitzeko premia duten hamar familiatik bederatzik (% 88,9k) ez du etxearen barrualdea egokituta, eta herenetik erdira bitarteko ehuneko batek hainbat arazo ditu eraikinaren elementu komunei edo kanpoaldeari lotuta.


Birgaitzeko premia duten etxebizitzen irisgarritasuna




**Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzen beharrei eta eskariari buruzko inkesta (EBEI)

Birgaitzeko premia duten elementu nagusiak.


Birgaitzeko premia duten **ELEMENTU KOMUN** nagusiak



Birgaitzeko premia duten **ELEMENTU PRIBATIBO** nagusiak



Elementu komunen birgaitzearen batez besteko kostua 18.000 eurokoa da, eta elementu pribatiboen 16.000 eurokoa.




**Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta (EBEI)

## C.- Etxebizitza birgaitzeko premia duten familien profila

Etxebizitza birgaitzeko premia duten familien diru-sarrerak txikiagoak dira euskal batez besteko errenta baino.

Etxebizitza birgaitzeko premia duten familien erdiaren batez besteko errenta 1.905 eurotik beherakoa da, eta familia horien hileko batez besteko diru-sarrerak 2.160 eurokoak dira. Sarrera horiek ozta-ozta iristen dira euskal familien batez besteko errentaren % 60ra.


Hamar familiatik ia lauk (% 39,3k) kontratu finkodun soldatako kideren bat dute eta % 19,4 lehenago lan egin duten erretirodunek osatuta dago.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta (EBEI)

### Etxea birgaitzeko premia duten familien laurden bat


Etxebizitza birgaitzeko premia duten familien batez besteko tamaina 2,6 kidekoa da, eta tamainaren araberako banaketa nahiko homogeneoa da: familien laurden bat (% 25,0) kide bakarrekoa da, % 27,2 bi kidek osatua da, % 21,7 hiru kidek eta % 26,1 lau kidek edo gehiagok.



## 2.4.- BIRGAITZE-JARDUERA

### A.- Eraikinen Ikuskapen Teknikoa

2019ko EBEIaren arabera etxebizitza birgaitzeko premia duten 68.423 familietatik % 46k EITa erregistratua zuen.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta (EBEI)

Eraikinen Ikuskapenen Erregistroa 2014. urtean indarrean jarri zenetik 2020ko irailaren 31ra bitartean<sup>3</sup>, guztira **47.637 EIT egin dira Euskadin**.

- **24.254 eraikinek (% 52k) obrak behar dituzte edo behar izan dituzte gehienez urtebeteko epean.** Hortaz, suposatzen da lan horiek dagoeneko gauzatu direla neurri handi batean.
- Beste 22.092 eraikinek epe ertaineko obrak edo mantentze-lanak behar izan dituzte.

Birgaitzeko premia izan dezaketen etxebizitzaren kopuru potentziala handia da oraindik:


- 2020aren bukaeran, Euskadiko **77.334 eraikinek egin behar dute EITa** (1969 baino lehen eraiki ziren).
- 50 urtetik gorako eraikinetan EITa egiteko **betebeharraren betetze-maila % 47koa da 2019ko abenduaren 31n**.

<sup>3</sup> <sup>4</sup> 80/2014 Dekretua, maiatzaren 20koa (gaur egungo 11772018 Dekretuak, uztailaren 24koak, indargabetua) indarrean jarri aurretik egindako EITek ez dute energia-efizientziari buruzko informaziorik<sup>5</sup> Birgaitze Integraleko Area izendatutako hiri-multzoak<sup>6</sup> Jarduketak 4 urteko gehieneko epean garatzen dira eta aurrekontu-zuzkidura 4 urteko epealdirako periodifikatzen da




Ikertutako eraikinek **energia-efizientzia** txikia dute<sup>4</sup> gaur indarrean dauden ereduekin alderatuta.

- Guztira argitaratutako 47.637 EITetatik **gehienak, % 42,2, E letrakoak dira; ondoren, F letrakoak % 23,7 dira eta G letrakoak % 19,4.**



## B.- Birgaitzeko lizentziak

- Euskadin birgaitze-lanak egiteko emandako lizentzien kopurua handia bada ere, zertxobait egin du behera 2019ko maximo historikotik 2020ra: 2.800 lizentzia eman ziren guztira, hau da, obra handitarako emandako lizentzia guztien % 84,74.
- Bilakaerari erreparatuta, gorako joera etengabea izan da azken bost urteotan, 2020ko salbuespena kenduta.




<sup>4</sup> 80/2014 Dekretua, maiatzaren 20koa (gaur egungo 11772018 Dekretuak, uztailaren 24koak, indargabetua) indarrean jarri aurretik egindako EITek ez dute energia-efizientziari buruzko informaziorik<sup>5</sup> Birgaitze Integraleko Area izendatutako hiri-multzoak<sup>6</sup> Jarduketak 4 urteko gehieneko epean garatzen dira eta aurrekontu-zuzkidura 4 urteko epealdirako periodifikatzen da

**Iturria:** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

Eraikinen birgaitze-ratioa (birgaitzeko lizentzien kopurua / eraikinen kopurua) % 1,5ekoa zen 2018an. Nahiko datu altua da hori, kontuan hartzen badugu historikoki % 1ekoa izan dela.

Hala ere, **Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratuak % 3ko berritze-helburua aurreikusten du estatu-mailan.**

Eraikinen birgaitze-ratioaren bilakaera. 1998-2018



**Iturria:** Geuk egina, lizentzien datuetan eta eraikinen parkeari buruzko Eustaten datuetan oinarrituta.


Birgaitzeko lizentzien batez besteko aurrekontua 89.776 eurokoa izan zen 2020an, eraikuntza berriko lizentzia bakoitzeko 12 aldiz txikiagoa.

**€ birgaitzeko 12 lizentzia = € eraikuntza berriko 1 lizentzia**

## C.- Birgaitzeko laguntza-eskaerak

Jarduera eten bada ere, Euskadin aurreko bi urteetan baino birgaitzeko laguntza-eskaera gehiago zenbatu dira 2020an. Gainera, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak argitaratutako informazioaren arabera, lurralde arteko konparazioak agerian jartzen du 2019an (datu itxiak dituen azken ekitaldia) birgaitzeko laguntzen bolumena handiagoa izan zela Euskadin gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta.

Etxebizitza-parkearen birgaitze babestuko eskaera-kopurua (estatuko eta autonomia-erkidegoetako planak).



## 2.5.- BIRGAITZE-POLITIKA PUBLIKOAK

### A.- Etxebizitzak Birgaitzeko Eusko Jaurlaritzaren Renove Plana

Euskadin, **Etxebizitzak Birgaitzeko Renove Planaren** bidez gauzatu da birgaitze-estrategia. Plan horrek **5 programa** ditu eta, horietatik 3 etxebizitzako programa espezifikoak dira, **energia-efizientziari, irisgarritasun unibertsalari eta bizigarritasunari lotutako irizpideak erabiliz** etxebizitzak birgaitzeko premiari erantzun operatiboa emateko. <https://www.etxebide.euskadi.eus/etxebizitzak-birgaitzeko-renove-plana/x39-contgen/eu/>

#### Programak:

- Partikularrentzako eta jabekideen erkidegoentzako laguntza-programa, **eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko**.
- **Etxebizitza eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako** laguntza-programa, ondare eraikien esku hartzeko proiektuak egiteko.
- Udalentsako eta tokiko erakunde txikientzako irisgarritasunaren arloko laguntza-programa.
- Birgaitze integratuko areetan (BIAetan) eta bizitoki-area degradatuetan (BADetan) ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko dirulaguntza-programa.
- **Hiria berroneratzeko** dirulaguntza-programa.

#### RENOVE PLANEKO PROGRAMEN EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA

##### A1. Partikularrentzako eta jabekideen erkidegoentzako laguntza-programa, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko.


Helburua: bizigarritasuna hobetzeko, pertsona desgaituen irisgarritasuna ahalbidetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko partikularrek eta jabekideen erkidegoek egiten dituzten birgaitze-lanetan laguntzea.		
Onuradunak	Birgaitze-mota eta jarduketak	Laguntza-mota
Partikularrak <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elementu erkideak</li> <li>• Elementu pribatiboak</li> </ul> Jabekideen erkidegoak <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elementu erkideak</li> </ul>	Birgaitzea <ul style="list-style-type: none"> <li>• Integratua: BIE-etan<sup>5</sup></li> <li>• Isolatua: BIE-etatik kanpoko eremuetan</li> </ul> Jarduketak <ul style="list-style-type: none"> <li>• Egitura, eraikuntza eta bizigarritasun-baldintzak egokitzea.</li> <li>• Irisgarritasuna egokitzea.</li> <li>• Energia aurrezteko inguratzaille termikoa</li> <li>• Akabera egokitzea eraikuntza onaren oinarrietara</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Itzuli behar ez diren dirulaguntza pertsonalak</li> <li>• Mailegu kualifikatua</li> <li>• PFEZko kenkaria, zerga-kreditu erabilgarriaren arabera</li> </ul>

<sup>5</sup> Birgaitze Integraleko Area izendatutako hiri-multzoak<sup>6</sup> Jarduketak 4 urteko gehieneko epean garatzen dira eta aurrekontu-zuzkidura 4 urteko epealdirako periodifikatzen da


### Etxebizitzaren Gida Planaren 3 urteetan (2018-2020)

- **29.160** etxebizitza birgaitu dira eta **51,6** milioi euroko dirulaguntzak eman dira.
- Dirulaguntzen zenbatekoak eta ehunekoak handiagoak dira birgaitze-jarduketak Birgaitze Integratuko Eremuetan gauzatzen direnean.
- Batez besteko dirulaguntza etxebizitzako 2020an:  
 Birgaitze integratua: **3.302 €** etxebizitzako  
 Birgaitze isolatua: **1.715 €** etxebizitzako
- Emandako dirulaguntza gehienak birgaitze isolatuko jarduketei dagozkie (2020ko banaketa).  
 Birgaitze isolatua: **% 81**  
 Birgaitze integratua: **% 19**
- Programaren helburu nagusia eraikineko elementu erkideak dira (2020ko zenbatekoen banaketa).  
 Jabekideen erkidegoentzako laguntzak: **% 49,5**  
 Partikularrentzako laguntzak elementu erkideetarako: **% 49**  
 Partikularrentzako laguntzak elementu pribatiboetarako: **% 1,5**

Birgaitutako etxebizitzaren kopuruaren eta birgaitzeko laguntzen zenbateko osoaren bilakaera. 2006-2020  
 Birgaitutako etxebizitzaren kopurua



### Dirulaguntzen zenbatekoa guztira



2020an onartutako dirulaguntzak, lan-motaren eta laguntza-motaren arabera.

Lan-mota	Dirulaguntza guztira
Egitura eta eraikuntza egokitzea	6.928.462 (% 48,9)
Etxebizitzak irisgarritasuna hobetzeko egokitzea	3.200.310 (% 22,6)
Inguratzaila (energia-efizientzia)	3.966.590 (% 28,0)
Akabera egokitzea eraikuntza onaren oinarrietara	71.200 (% 0,5)
Eraikinen Ikuskapen teknikoen (EIT) ordainsariak	1.800 (% 0,0)
<b>Guztira</b>	<b>14.168.363</b>

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

## A2. Etxebizitza eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako laguntzen programa, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko.

<b>Helburua:</b> Multzokatuta egonik blokeak edo etxadiak osatzen dituzten eraikinen irisgarritasuna, suteen kontrako segurtasuna eta energia-efizientzia hobetzea, gutxienez horren alde bat barne hartuta; hain zuzen ere, nagusiki bizitzeko erabiltzen dena.		
Onuradunak	Jarduketa-mota	Laguntza-mota
Multzokatuta egonik blokeak edo etxadiak osatzen dituzten eraikinetako jabekideen elkarteak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eraikinen energia-portaera hobetzen duten jarduketa pasiboak edo aktiboak (gutxienez C energia-ziurtagiria lortu behar da).</li> <li>Eraikinen irisgarritasuna hobetzea.</li> <li>Suteen aurkako segurtasun-baldintzak hobetzea.</li> <li>Bizigarritasun-baldintzak hobetzea, eraikitako perimetroa handituz:</li> <li>Energia-monitorizazioa.</li> </ul>	Itzuli behar ez diren dirulaguntzak.

- 520 etxebizitza birgaitu dira 2020an eta 8,9 milioi euroko dirulaguntza eman dira.
- Birgaitze eraginkorreko programaren aurrekontu-zuzkidura nabarmen handitu da azken urtean (kanpoko espazio berriak zabaldu eta sortzeko obrak hartzen ditu barne lehen aldiz).

Etxebizitza eta eraikinen birgaitze eraginkorreko programaren 2018ko, 2019ko eta 2020ko deialdien emaitzak (€) <sup>6</sup>

Urteko banaketa	2018ko deialdia	2019ko deialdia	2020ko deialdia
2018	425.000	--	--
2019	1.850.000	550.000	--
2020	2.400.000	1.950.000	1.417.731
2021	1.500.000	2.400.000	2.000.000
2022	--	1.500.000	3.950.000
2023	--	--	1.500.000
<b>Deialdia guztira</b>	<b>6.175.000</b>	<b>6.400.000</b>	<b>8.867.731</b>

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza

<sup>6</sup> Jarduketak 4 urteko gehieneko epean garatzen dira eta aurrekontu-zuzkidura 4 urteko epealdirako periodifikatzen da

### A3. Udalentzako eta tokiko erakunde txikientzako irisgarritasunaren arloko laguntza-programa.

<b>Helburua:</b> Pertsona guztiak hiri-inguruan eta espazio publikoetan berdin eta ahalik eta modu askeenean moldatu ahal izatea.		
Onuradunak	Jarduketa-mota	Laguntza-mota
Udalak Tokiko erakundeak. Xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletan eta tokiko erakunde txikietan irisgarritasun-planak egitea eta eguneratzea</li> <li>• Irisgarritasuna hobetzeko lanak egitea.</li> <li>• Igogailuak eta plataforma jasotzaileak instalatzea, eraikinetan eta espazio publikoetan.</li> </ul>	Itzuli behar ez diren dirulaguntzak.

- Programa honetarako zuzkidura handitu eginda azken Gida Planaren indarraldian zehar.
- Dirulaguntzen erdia baino gehiago (2,5 milioi euro) hiri-igogailuak instalatzeko izan dira.

Udalei eta udalerrira baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeei irisgarritasuna hobetzeko emandako dirulaguntzak. 2013-2020

Urtea	Planak		Obrak		Guztira	
	Kop.	m €	Kop.	m €	Kop.	m €
2013	37	407	152	1.393	189	1.800
2014	24	249	57	2.251	81	2.500
2015	32	300	102	2.700	134	3.000
2016	26	302	142	2.698	168	3.000
2017	23	377	72	2.923	95	3.300
2018	25	293	141	6.107	166	6.400
2019	29	366	112	5.634	141	6.000
2020	18	217	68	4.084	86	4.302

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritzak

2020ko Irisgarritasun Programaren aurrekontuaren banaketa, jarduketa-motaren arabera

	2020ko deialdia	
	Esleitutako zenbatekoa	%
Urbanizatzea	748.096,8	17,4
<b>Hiri-igogailua</b>	<b>2.511.033,0</b>	<b>58,4</b>
Eraikuntza	287.862,1	6,7
Arrapalak, ibiak eta eskudelak	537.202,2	12,5
Planak	217.476	5,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.301.670</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritzak



## Eusko Jaurlaritzak 2019an babestutako jarduketaren eragina

**Sailak 2019an egindako gastuak 20,9 aldiz handiagoa den inbertsioa eragin zuen.** Etxebizitza Sailburuordetzak babestutako hiri-birgaitzeko eta -berroneratzeko jarduketek, guztira, 31,9 milioi euroko gastua eta 665,5 milioi euroko inbertsioa eragin zituzten

Sailak birgaitze-jardueretan egindako gastua eta eragindako inbertsioa 2019an


	Sailaren gastua (€)	Inbertsioaren bolumena (€)
<b>Birgaitze-jarduerak</b>	<b>25.907.812</b>	<b>652.686.296</b>
Partikularrei eta jabeen erkidegoei dirulaguntzak emateko 1. programa	19.507.812	516.346.765
Etxebizitzen eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako 4. programa	6.400.000	16.329.333
Zerga-arinketako eskaera	--	120.010.198
<b>Hiria berroneratzeko jarduerak</b>	<b>6.000.000</b>	<b>12.837.127</b>
2. Irisgarritasun-programa	6.000.000	12.837.127
<b>Guztira</b>	<b>31.907.812</b>	<b>665.523.423</b>

Zerga-arinketa: aurrekontu babesgarriaren % 18 (gehienez 1.530 € urtean).

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza

**Eskari osoaren terminoetan, Sailburuordetzak inbertitutako diru publikoko euro bakoitzeko 35,1 € sorrarazi dira.** Etxebizitza Sailak babestutako hiri-birgaitzeko eta -berroneratzeko jarduerak 1.100 milioi eurotik gorako eskari osoa sorrarazi zituzten 2019an.

Sailburuordetzaren birgaitze-jardueraren inpaktuaren osagaiak produkzio-terminoetan. 2019.  
Birgaitze- eta berroneratze-jarduera (milioi eurokotan)



**Sailburuordetzak birgaitze-arloan gastatutako euro bakoitzaren eragin biderkatzailea 14,2 €-koa izan zen, BPGd-aren terminoetan.** Etxebizitza Sailburuordetzaren birgaitze-arloko jarduerak sorrarazitako BPDd osoa 454.505.949 €-koa izan zela kalkulatu da (Euskadiko BPGd osoaren % 0,59).

Etxebizitza Sailburuordetzaren birgaitze-jarduerak sorrarazitako BPGd-a. 2019

Jarduerak	Zuzeneko eragina	Zeharkako eragina	Guztira
Birgaitzea	374.888.435	7.373.359	445.739.090
Hiri-berroneratzea	7.373.359	1.393.501	8.766.860
<b>Jarduera guztira</b>	<b>382.261.794</b>	<b>72.244.155</b>	<b>454.505.949</b>

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritzia.

Enpleguaren ikuspegitik, Etxebizitza Sailburuordetzak 2019an babestutako birgaitze-jarduerak 6.756 lanpostu sortzen edo mantentzen lagundu zuten 2019an, EAEko biztanleria enplegatuaren % 0,7.

## B.- PFEZko kenkari fiskalak

Euskadiko 25.000 bat zerga-aitorpenek lortu zituzten kenkari fiskalak 2918an etxebizitza birgaitzeagatik, guztira 14,3 milioi eurokoak.

- Etxebizitza birgaitzeari lotutako gastua, handitzeko joera badu ere, txikia da beste partida batzuetakoekin alderatuta (409,3 milioi euroko etxebizitza-kenkariaren % 3,5).
- Datu horien arabera, kenkari horien kostu ekonomikoa mugatua da, birgaitutako etxebizitzaren kopurua eta aurrekontu babesgarria kontuan hartuta.

Etxebizitza birgaitzeagatik kenkariaren bilakaera Euskadin. 2010-2020

	Ohiko etxebizitza birgaitzeagatik kenkaria	OHIKO ETXEBIZITZAGATIKO KENKARIA, GUZTIRA	Birgaitzeagatik kenkariaren %-a
2010	3.039.740	420.161.088	0,7%
2011	5.064.179	410.790.975	1,2%
2012	5.841.950	387.470.039	1,5%
2013	8.871.400	467.599.373	1,9%
2014	11.745.594	432.104.016	2,7%
2015	9.183.335	391.059.078	2,3%
2016	9.244.284	371.783.867	2,5%
2017	8.800.202	376.388.967	2,3%
2018	7.532.888	379.148.282	2,0%
2019	12.297.532	380.789.985	3,2%
2020	14.292.350	409.292.508	3,5%

## 2.6.- EUROPAKO ETA ESTATUKO EPE ERTAINEKO ETA LUZEKO ESTRATEGIAK

### Birgaitze-alarreko politika- eta arau-esparrua

EBren energiaren eta klimaren arloko esparru estrategikoa eta jarduera-eremua nabarmen eguneratu da 2015eko Parisko Akordioan eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan lortutako konpromisoetatik abiatuta. Hala, asmo handiagoko helburu berriak ezarri dira eta estatu kideen epe luzerako ekintza politikoa sustatu da, bai energiaren eta klimaren politika integratuaren zeharkako ikuspegitik bai, zehazki, eraikinen energia-efizientziaren arloan.

### Europan:

**2018/844 Zuzentaraua**, Eraikinen Energia Efizientziari buruzkoa.

- Birgaitzearen ikuspegi berriak ekarri ditu, adibidez energia-pobretasunari dagokiona.
- Ibilbide-orri zehatzagoa ezartzen du 2050eko higiezinaren parke deskarbonizatuaren edo kontsumo nulukoaren bidean.

**2018/199 Erregelamendua**, Energia Batasunaren eta Klimaren aldeko Ekintzaren gobernantzari buruzkoa

- Epe luzeko birgaitze-estrategien oinarriak jasotzen ditu.
- Estatu kide bakoitzaren ekintzak koordinatzen ditu, **energiari eta klimari buruzko plan nazional integratuen bidez (2030eko helburuak)**.

### Estatuan:

**2021-2030 aldirako Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratua (EKPN)**

- PNIEC dokumentu programatikoa da, eta bertan datozen 10 urteetarako helburuak eta jarduera-ildoak ezartzen dira emisioei, energia berriztagarriei eta energia-efizientziari dagokienez.
- **Bizitegi-sektorearen kasuan, energia-aurrezpena eta -efizientzia lehenesten dira** (2.6 neurria), batez ere inguratzaile termikoetan esku hartuz eta lehendik dauden bizitegi-eraikinetako instalazio termikoak berrituz; horretarako, 34.646 milioi euroko inbertsioa aurreikusi da aldi osorako (bizitegi-sektorean aurreikusitako inbertsioaren % 86,2).
- Beste bi dokumenturen esparru estrategikoa osatzen dute: onartu berri den **Aldaketa Klimatikoari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legea eta Bidezko Trantsizio Estrategia**.
- Sektoreren helburu eta neurrien xehetasuna Eraikuntza-sektoreko energia-birgaitzerako epe luzeko estrategian (ERESEE 2020) jaso beharko da.

## Europa > Estatuak > Euskadi:

### Next Generation EU funtsak

#### España Puede plana: Suspertzeko, Eraldatzeko eta Erresilientziarako (PRTR) Plana

#### Euskadi Next: Suspertzeko eta Erresilientziarako Euskadiko Programa 2021 - 2026

### Next Generation EU funtsak

- COVIDak eragindako testuinguru larriaren eta zailaren baitan, 2020an Europako Batzordeak akordio historikoa itxi zuen aparteko egoera honi erantzuna emanez 750.000 milioi euroko zenbatekoa mobilizatzeko. **Next Generation EU**<sup>7</sup> izeneko funtsak dira Suspertzeko Europako Planaren (#EUBudget #EUSolidarity #StrongerTogether) baitan sortu dira. Zenbateko horri eta 2021-2027ko Hainbat Urtetarako Finantza Esparruko 1,074 bilioiko zenbatekoari esker, hurrengo urteotan inbertsioei dagokionez aurrekaririk gabeko bolumena izango dute eskuragarri hainbat esparru sozioekonomikoetan eta, bereziki, etxebizitzaren arloan. Europako Batzordearen akordioak aurrez ikusi duenez, **Espainiak 140.000 milioi euro arteko finantzaketa jasoko du 2021 – 2026 aldian transferentzian eta kreditutan.**

### PRTR eta 2 Elementua (inbertsio-lerroak eta erreforma estrukturalak).

- Suspertzeko, Eraldatzeko eta Erresilientziarako (PRTR) Planak hazkunde iraunkor eta inklusiborako erreforma estrukturalaren 10 politika bultzatzaile jasotzen ditu 30 elementuren gainean hedatuta.
- Birgaitze-lanei dagokionez, nabarmendu beharrekoa da **2. Elementua - Espainiako Hiri Agendaren Ezarpena: Hiriko birsorkuntzako eta etxebizitzaren birgaitze-plana, 6.820 milioi euroko zenbatekoa duena (Etxebizitzak eta bizitoki-inguruneak birgaitzeko programa)**, 6 inbertsioaren bidez bideratutakoa:
  - ✓ **C2.11** Bizitoki-inguruneetan suspertze ekonomikoa eta soziala lortzeko birgaitze-programak
  - ✓ **C2.12** Energetikoki eragingarriak diren eraikinetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzeko programa
  - ✓ **C2.13** Eraikinetako energia-birgaitzerako programa (PREE)
  - ✓ **C2.14** Birsorkuntza eta erronka demografikoko programa
  - ✓ **C2.15** Eraikin publikoen birgaitzeari bultzada emateko programa (PIREP)
  - ✓ **C2.16** Espainiako Hiriko Agendaren tokiko ekintza-planetako proiektu pilotuak prestatzeko laguntzen programa
- Inbertsioaz gain, 2. elementu honetan erreforma estruktural nagusi hauek ere jasota daude:
  - ✓ **C2. R1** Espainiako Hiriko Agenda ezartzea.
  - ✓ **C2. R2** Espainiako Eraikuntzaren Sektorean Energia Birgaitzeko epe luzerako estrategia (ERESEE) eta haren ekintza-plana.
  - ✓ **C2. R3** Etxebizitza Legea
  - ✓ **C2. R4** Arkitekturaren eta eraikitako ingurunearen Kalitate Legea
  - ✓ **C2. R5** Birgaitze Bulegoak (“leihatila bakarra”)
  - ✓ **C2. R6** Birgaitze-jardueren finantzaketa hobetzea

### Euskadi Next

- Euskadiren kasu zehatzari dagokionez, 2020. urtearen amaieran, Gobernu Kontseiluaren bidez, **Euskadi Next 21 – 26** Programa onartu zen; Euskadiren suspertzerako, eraldaketarako eta erresilientziarako programa da eta Europako 5.700 milioi euro erakartzeko eta guztira 13.135 milioi euro mobilizatzeko helburua du (Euskadiko administrazioetako aurrekontuen eta inbertsio pribatuaren bidez).

<sup>7</sup> Zenbateko horren zati handi bat 2020 – 2024 aldian metatuko da

### **3. ATALA.- *Balizko eztabaidagaien aurrerapena***

## **Eztabaida laguntzeko eta diagnostikoan sakontzeko galderak**

Oro har, eztabaida irekia proposatzen da egindako diagnostikoarekiko adostasun-edo/eta sakontasun-mailari buruz. Talde-lana egituratzen laguntzeko, galdera edo gogoeta-ildo batzuk proposatzen dira:

#### **0. AZTERTUTAKO EREMUAK BALIOZKOTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ZEHAZTEA/SAKONTZEA**

Koadernoetan aurkeztutako informaziotik abiatuta, eztabaida hiru esparru handitan zentratzen saiatu gara,. Nolanahi ere, eztabaidarako honako hau planteatzen da:

- Horietako bakoitzean izan daitezken hutsune informatibo/diagnostikoak identifikatzea, eta, hala badagokio, hobetzea eta sakontzea.
- Beste eztabaida-eremu batzuk adieraztea, saio honetan bertan garatzeko eta/edo parte-hartzaileei bidaliko zaien emaitzen "itzulketan" osatzeko.

#### **I. ETXEBIZITZA-PARKEA, JOERA SOZIOEKONOMIKOAK ETA BIRGAITZEKO BEHARRAK**

1. Euskadiko etxebizitza-parkearen egoeraren eta epe ertainerako behar eta erronken balorazioa, birgaitzeari, irisgarritasunari eta energia-eraginkortasunari dagokienez.
2. COVID-aren krisiaren eragina familien profileen, eta birgaitzeko beharretan eta horiei aurre egiteko gaitasunean aurreikus daitezkeen ondorioak.

## **II. BIRGAITZE JARDUERAREN JOERAK ETA EPE LABUR ETA ERTAINERAKO AURREIKUSPENAK**

3. Jarraituko al du errehabilitazio-jardueran Covid-19-ren krisiaren aurretik antzematen zen goranzko joerak? Zein dira erritmo horri heltzeko edo erritmo hori areagotzeko faktore kritikoak (sozioekonomikoak, laguntzak/informazio eskasa)?
4. Zenbateraino dira gai sektorea eta herritarrak Europan ezarritako helburuak betetzeko?
5. Zein izan daiteke birgaitzearen eginkizuna eraikuntza-sektoreko trakzio-jarduera gisa?

## **III. BIRGAITZE JARDUERAREN FINANTZAKETA ETA SUSTAPENA EKIMEN PUBLIKOTIK**

6. Zer eginkizun dute edo izan dezakete programa eta pizgarri publikoek? Egokiak dira? (Nahikoak/eskasak, bestelako pizgarri edo kenkariak)
7. Zenbateraino izan daitezke irisgarritasuna eta energia-efizientzia aukera/erronka bat sektorearentzat?
8. Zenbateraino izan daiteke jarduera garrantzitsua gizartearentzat? Posible eta desiragarria al litzateke eragile publiko eta pribatuen akordio bat, sektoreari behin betiko bultzada emateko? Horretarako, zein izan daiteke Next Generation funtsen benetako rola?